

Alkatearen probidentzia

Oñatiko Udaleko Liburutegiko departamenturen egoera ikusita: liburutegiko laguntzaile bat bajaran dagoen bitartean postua betetzeko pertsona bat kontratatzeke proposamena egiten da.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere **58. Artikuluak** dio:

"1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2- Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gairitu dutenen artean.

3- Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoetaz baliatzeko aukera egongo da."

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: *"Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, albuespenezko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeraezinazko beharrianak betetzeko."*

Oñatiko Udalak ez du lan poltsarik, eta inguruko Udaletako lan poltsetatik hautagairik ez da lortu.

Liburutegiko laguntzailea izatea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea, liburutegiko laguntzaile bat kontratatzeke.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, liburutegiko laguntzaile postua betetzeko, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 10.1.b artikuluen arabera, ordezkaturako langilearen absentziak irauten duen bitartean, lanpostua gordetzeko eskubidearekin (2720/1998 Errege Dekretua, 4. Artikuluan), enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratuz. Hileko soldata gordina ordezkaten duen langilearen lanpostukoa izango da, parte proportzionalan.

2.- Honako profil hau eskatzen da:

Liburutegiko laguntzailea (C1), postua betetzeko:

Lan kontratu mota: ezintasun egoera irauten duen bitartean

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: Liburutegiko laguntzaile postuari dagokiena

- Beharrezko prestakuntza:

- Titulazioa: Batxilergoa, titulu teknikoa edo parekoa
- Hizkuntza-eskakizuna: 3

- Prestakuntza osagarria:

- Deitutako lanpostura sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoaren goi-mailako titulazioa, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalera egokitutako titulazioak badira.
- Deitutako lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak.
- Lanbide-esperientzia

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

3.1 Beharrezko prestakuntza:

- Titulazioa: Batxilergoa, titulu teknikoa edo parekoa
- Hizkuntza-eskakizuna: 3

3.2 Prestakuntza osagarria:

- Deitutako lanpostura sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoaren goi-mailako titulazioa, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalera egokitutako titulazioak badira (gehienez 2p).
- Deitutako lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak. (gehienez 4p).

3.3 Lanbide-esperientzia (gehienez 20 puntu):

0,20 puntuko puntuazioa Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan (C1 azpikategorian), lanbidek igorritako informazioaren arabera. Administrazioa toki-administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.

0,005 puntuko puntuazioa sektore pribatuan eskainitako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan, lanbidek igorritako informazioaren arabera eta iraupena eta lanbide-kategoria adierazita.

4. Epaimahai kideak:

GGBB eta Antolakuntzako AOT

Oñatin, sinadura elektronikoan agertzen den datan

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui Andrea

Oñatiko Udala

Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



EKS | CSV: SINAd0db1b9b-af56-4bcc-8385-960375c05379

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Liburutegiko laguntzailea Lanbide
CSV/EKS:	SINAd0db1b9b-af56-4bcc-8385-960375c05379